II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Bermeoko Udala

**Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako kartel iragarlearen 2026. urteko deialdia. BDNS (Identif.): 899290.**

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/899290).

Jakitera ematen da onartu egin dela, 2026ko apirilaren 14ko Tokiko Gobernu Batzarrean, Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako kartel iragarlearen lehiaketaren 2026. urteko deialdia. Beraz, jendaurrean jarri da, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

**Lehenengoa.—*Xedea***

2026ko Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzea.

**Bigarrena.—*Eskatzaileak***

Pertsona fisikoak.

**Hirugarrena.—*Lehiaketaren saria***

Sari bakarra egongo da, 600 eurokoa.

Sariaren zenbatekoari legez ezarritako atxikipen fiskala aplikatuko zaio.

**Laugarrena.—*Lanak aurkezteko epea***

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2026ko ekainaren 26ra arte (14:00etan).

**Bosgarrena.—*Lanak aurkezteko modua***

Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoan: https://egoitza.bermeokoudala.eus/

Berhaz: Ertzilla 6-8.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 8:00-14:30.

**Seigarrena.—*Aurkeztu beharreko dokumentazioa***

IN-292/02-24 agiria.

**Zazpigarrena.—*Kartel finalisten artean herritarrek bozkatzeko epea***

2026ko uztailaren 1etik (08:00etan) 10era arte (14:00etan).

**Zortzigarrena.—*Lan irabazlea jakinarazteko eguna***

2026ko uztailaren 13an.

**Bederatzigarrena.—*Helburuak, balorazio irizpideak eta prozedura***

Informazio hau 2025eko maiatzaren 14an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako kartel iragarlearen lehiaketaren oinarrietan agertzen da.

Bermeon, 2026ko apirilaren 16an.—Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly

eek: BAO-2026a076-(II-1996)